


BEZEROEKIKO HARREMANAK

Denda online bat edukiko dugu, beraz, bezeroak beraiek nahi dituzten produktu guztiak eskatzeko aukera edukiko dute etxetik mugitu gabe, oso modu eroso batean. Zerbitzu automatizatua eskainiko dugu webgunearen bitartez eta telefono zenbaki bat edukiko dugu webgunean bertan. Ordutegi baten barruan bezeroak telefono horretara deitzeko aukera edukiko dute sortzen zaizkien zalantza guztiak argitu ahal izateko.



Hortaz aparte bezero berriak lortuko ditugu gure produktuak beste enpresenak baino azkarrago iritsiko direlako eta gainera kalitate altuko produktuak izango direlako. Beste alde batetik, gure bezeroak argi edukiko dute gure produktuak ezarritako denboran iritsiko direla eta arazoren bat baldin badago gure laguntza guztia edukiko dutela arazo hori konpontzeko ahal den denbora gutxienean beraien produktua lehenbailehen etxean eduki ahal izateko.